

LAGUN MINAK
Markel Txasko Galarraga
Errenteria

Berriro jaio dela sentitzen du Enekok ospitaletik atera eta minutu gutxira. Autobusean eserleku asko daude libre, eta haietako batean eseri zitekeen. Baina ez. Denbora gehiegi eman du eserita, bizitzari itxaroten. Nahiago du zutik joan, autobusean zehar dauden barra zilarreztatuei heldurik, bihurtune bakoitzean, atzera eta aurrera, ez erortzeko ahaleginak eginez. Autobuseko leihoetan zehar begiratu du. Zeruan hegaka dabiltzan enarei egin die so, eta barrenak estutu zaizkio.

Antzeko sentipena izan zuen duela bost urte, gurpil-aulkian eseri aurretik. Hartan, etxeko balkoitik zeruko enarak behatzen ari zen. Enara-saldoa ikusi, eta kuadrillarekin akordatu zen. Zerbait sentitu zuen errailetan, barru-barruetan, zerbait hotza. Sentipen deseroso hori berehala desagertu zen, ordea, lagunuen mezu batek, bere gogoia ehurten ari zen pentsamenduaren haria eten zuenean. “Ailegatu duk eguna, hogeituro euro jarri behar dituk potorako, alkohola eta abarrerako, badakik”. Enarak ahaztu eta salara sartu zen.

Orain, ordea, ezin ditu enarak burutik kendu, eta enara-saldoan doazen enaren arteko harremana horren hutsala den galdetu dio bere buruari, penaturik. Autobusak, bat-batean, bihurgune bihurri batean bortizki jiratu du, Enekoren gorputza aieka batera botaz. Bihurgunean paratu zaizkio begiak. Ezin izan du saihestu. Egunero bezala, ohiko oroitzapenek hartu diote gogo. Film labur baten modura etortzen zaizkio burura, xehetasun bakoitza ikusiz.

–Kristoren gaua izango duk gaurkoa, ikusiko duk –komentatu zion Josuk, bizkarrean esku-zarta kementsu bat ematen zion bitartean.

Eneko ilaran lehenbizi zihoan, errepide bazterretik, urrutian argi distiratsuekin ikusten zen diskotekara gero eta gehiago hurbilduz. “Taxian ere joan gintezkeen” esaten zuen bere artean. Ordu pare bat lehenago, horretaz aritu ziren eztabaidan. Taxia garestiegia zela, herritik diskotekara, oinez, hamabost minutu baino ez zirela... Azkenean, Enekok amore eman zuen bere lagunaren aurrean, eta diskotekara errepide bazterretik joango zirela erabaki zuten. “Errepide hauetatik auto gutxi ibili ohi da” esaten zuen bere gogo konbentzitzeko asmoz.

Halako batean, ordea, bihurgunearen izkinatik bi argi agertu ziren. Eta ondotik, dena beltz ikusi zuen. Mundua gainera nola erortzen zitzaion nabaritu zuen.

Ez dago bihurgune bakar bat ere oroitzapen ilun horiek burura ekartzen ez dizkionik, barrenak

iraultzen ez dizkionik. Haatik, ohituta dago, jasangarri bihurtu du oinazea. Eta minak hainbeste higatutako pertsona izaki, ja higaezina dela uste du. Zenbat nahigabek mailukatu ote diote burua bakardadean zegoelarik? Bakardadea eta heriotza antzekoak baitira. Horregatik, berpiztean, indartsuago jaiotzen da, eta ez bakardadea, ez eta heriotza ere, ez dira beldur iturri.

Autobusak aurrera egin ahala mendi elurtuak ageri dira, eta haritz biluziak zeru urdinaren pean. Neguko paisaiari hotza dario, baina Enekok odola bero du, eta seguru sentitzen da. Irmo. Bizitza irabazteko bakarrik duela sentituz, zer galdu ez baitu. Tupustean, autobusa geltoki batean gelditu da, eta esperoan zeuden horiek autobusera igotzen hasi dira, banan-banan.

Lehenbizi agure bat igo da, makulua lagun, urteen zama gainean daramala. “Txapela inoiz burutik kendu ez duten horietakoa” esan du Enekok bere artean. Baina, berehala joan zaizkio burutik agurea eta haren makulua. Ondotik, neska gazte batek segitu dio agureari. Ederra da, beharbada Enekok inoiz ikusitako ederrena. Ileari erreparatu dio, ezti kolore gozoa du, distira urrekarakoa. Begiak kantu zaharrek deskribatzen dituzten bezalakoak dira: zeruko lore miresgarriak, izarren pare zoragarriak. Eta irriñoak areago edertzen dio aurpegia. Hain da liluragarria irribarrea, hain da kitzikagarria... Baina ez du neska politarengan arreta handiago jartzeko betarik izan. Ustekabean, neskaren atzetik, mutil gazte bizardun bat sartu baita. Hasieran

ez du ezagutu, baina autobusa zeharkatu ahala sabela uzkuratzen joan zaio, eta arnasa gelditzen.

Autoak harrapatu ondotik asteak eman zituen ospitalean. Eta ama gaixoa izan ezik ez zen beste inor gerturatu bera ikustera. Aspalditik zekien bere kuadrilla ez zela adiskidetasunean oinarritzen, eta ongi jakin ere. Gauean ateratzean ikusten baitzituen soilik. Gaupasetan. Eta sasi-lagun haiekin edukitzen zituen solasaldiak gauaren goiti-beheitien ingurukoak baizik ez ziren izaten. Finean, pitorako dirua gehitzeko erabiltzen zuten adiskidetasun zuri hori. Edo agian, sudurretik sartzen zuten zikinkeria guztia beste tuntun batekin partekatzeke.

Egia esan, espero izan behar zuen gertatuko zena, ondorio huts bat baitzen soilki. Baina itxaropenak elikaturik, bistakoegia den hori gezurra izan daitekeelako-edo, sarritan ez da egia sinetsi nahi izaten. Itxaropena sinetsi nahi den gezurra baita. Koldarrenenaren jarrera. Bizitzak egia ikusten uzten duenean, ordea, egiak itxaropen oro deuseztean, amildegian beheiti erortzen da, eta kosta egiten da zulotik ateratzea. Eta Eneko amildegian beheiti erori zen.

“Eta zure lagunak, Eneko? Non dira zure lagunak?” galdegin ohi zion ama dohakabeak kezkatu-rik. Eta Enekok, lotsaren lotsaz mututurik, erre-guzko begirada bat botatzen zion. Eta amak Enekorri begirada urrikalkor bat, bere semearen oinazea partekatu nahiko balu bezala, semearengan zetzan zama zailarekin kargatu nahiko balu

bezala, betiko lagun horiek ezezagun izatera pasatzen direnean gelditzen den amildegia bete nahiko balu bezala.

Haatik, hori ez zen izan bere min eta atsekabeen laurdena ere. Beste zerbait zen lokartu nahi zuen bakoitzean gogoia kolpatzen zion hori. Izan ere, Enekok bazuen lagun bat, Xabier izenekoa, zinez lagun mina zena. Edo hori uste izan zuen berak urteetan zehar. Txiki-txikitatik izan ziren lagun minak, irri egiten ere elkarrekin ikasi zuten, bai eta mota guztietako bihurrikeriak egiten ere. Nerabe zela, ordea, Xabier Alemaniara joan zen ikasketak burutzera, eta Enekok ez zuen inoiz gehiago ikusi.

Kanpoko hotzetik autobusera sartu eta jaka kentzeko beharra sentitu du Xabierrek. Baina ez du behar izan. Supituki, hezurretaraino sartu baitzaio hotza, bisuts hozgarri batek astindu izan balu bezala. Bera ere ohartu da Enekoren presentziaz. Eta begirada hilgarri bat jaurti dio, Enekok Xabierri bezala. Begiradak dirauela hamaika sentimendu gurutzatu dira, begi batzuetatik besteetara erasoka. Eta biek ala biek oroitzapen mingarriak ekarri dituzte gogora.

Enekok ongi aski gogoratzen du Xabierrekin urteetan edukitako posta-truke estua. Atzerrira ikas-tera abiatu zenetik, eskutitzak igortzen zizkieten batak besteari, gogo barrenean izan ohi zituzten kezka gordeenak idatziz. Istripua eduki zuenean, ordea, igorri zion eskutitza, eta aipatu sasi-lagunen jarrera higuingarria, eta posible bazitzaion joateko bisitan, eskertuko zuela. Baina ez zuen erantzunik

jaso. Eskutitza bidean galdu zelakoan-edo, beste bat bidali zion, eta beste bat, eta beste bat. Bakardadearen mina eusten jakin zuen arte bidali zizkion, gau luzeetan isuritako malkoak ahitu arte. Baina ez zitzaion eskutitz bat bera ere bueltan iritsi.

Nonbait babestea, sostengatzea, ezinbestekoa denean. Eta nora jo jakin uste denean. Ustezko babestoki edota euskarri hartara iritsi, deusezarekin topatu, eta etsipenean, gorrotoan erortzen da bat. Eta Enekok, etsipenean, gorrotoan erori zenean, inoiz barkatuko ez ziola zin egin zuen. Eta ordura arte jasotako eskutitz bakoitza erre zuen, negar artean.

Koldarrenek, higuingarrienek, zitalenek, baka-
rrik diote “lagun nauzu”, “alboan izango nauzu
behar duzunerako”, eta gero huts. Gero hor kon-
pon. Zein duintasun klase edukiko ote du Xa-
bierrek? Ba al daiteke oraindik ere begietara begi-
ratzen ausartzea? Enekok are eta sutsuago itzultzen
dio begirada, gorroto bizenarekin hil nahi izango
balu bezala. Gau luzeetan jasandako atsekabeen
iturria du begien parean, eta esango lizkioke gauza
anitz, garrasika beharbada, baina guztiak begirada
batean batzen zaizkio. Begirada beldurgarri bezain
gorrototsu batean, bakardadean idortzera konde-
natu zuenari munduko nahigabe guztiak leporatuz
bezala.

Bi mutil gazteen artean denbora gelditu egin da,
eta ingurua ilundu. Izoztuta dituzte begitarteak,
eta gori-gori begi-niniak. Kanpotik ikusten dituen

inork ezin izango du imajinatu ere egin egun batean lagun minak izan zirenik, egun batean elkarrekin jostatzen zutenik irri artean. Izan ere, Enekok begiradarik bortitzenarekin egiten dio so Xabierri, eta honek, urteetan jasan zuen min guztia bidaltzen dio sorik hilgarrienarekin. Hondamendi handia ekarri baitzion Enekok Xabierri.

Urteak dira Rosenheimera abiatu zela. Dena utzi eta kanpora joateko hautua aspaldi zuen egina. Giroz aldatzeko beharra sumatzen baitzuen. Egia esan, zinez min ematen zion gauza bakarra, bere bihotzeko lagun mina bertan uztea zen. Hala eta guztiz, batak besteari eskutitzak bidaliko zizkiotela adostu zuten.

Hasiera batean kosta egin zitzaion Alemaniako ohituretara ohitzea, beren hoztasunarekin bat egitea. Baina denborak aurrera egin ahala, pixkanaka-pixkanaka, lagunak egiten joan zen. Eta bizitzaren sorpresetako batek, ezustean, Katharina ezagutzeko beta eman zion.

Katharina neska ederra zen, barrutik zein kanpotik. Ile-horia zen, begi urdinekoa, eta masailak sarritan gorrituak eduki ohi zituen. Atsegina zen, eta irekia ezagutzen zuen ororekin. Agian horregatik adiskidetu ziren Xabier eta bera hain erraz. Katharinari Xabier inoiz ikusitako mutilik paregabeena iruditzen zitzaion; perfektua.

Asko gustatzen zitzaion Katharinari “perfektu” hitza ahoskatzea, edo askotan aditu ahal izan zion gerora Xabierrek: “harreman perfektua”, “egun perfektua”, “bizitza perfektua”... Beti kontent edo

beti negarrez egon ohi diren horietakoa zen Katharina, errusiar mendi baten antzeko ibilbidea zuen bere aldarreak, eta aise pasa zitekeen irrik politena egitetik negar tristeena egitera. Horregatik, beharbada, zaila izan zen bien arteko hasiera. Funtsan, hasiera guztiak bezala.

Katharina arrunt posesiboa zen, eta berarentzat nahi izaten zuen denbora guztia Rosenheimgo parkeetan barna Xabierri eskutik helduta ibiltzeko, edota Rosenheim handitik kanpo zeuden soro berdatuetan bere besoetan etzateko, honen ileak ferekatuz. Eta Xabierrek, ikasketak zirela-eta, ezin izaten bazuen gelditu, Katharina zeharo erretxintzen zen, amorrualdi ergelak edukiz.

Baina denborak aurrera egin zuen, harremanak ere hobera egin zuen bezala. Hala, Xabierrek lan bat topatu zuen harategi batean, eta Katharinaren osaba zenaren etxera joan ziren bizitzera. Erraza zen Katharinarekin gustura egotea nahi zuena ematen bazitzaion, eta Xabierrek aurkitu zuen modua. Bertako lagun alemaniarrek aieka batera utzi eta Katharinarekin iragaiten zituen ja egunak. Ez zen garagardotegi iskanbilatsuetara gehiago gerturatu, ez eta lagunartean egindako mendi buelta atseginetara. Katharinari eskutik helduz, Rosenheimgo parkeetako orbelen gainean ibiltzen hasi zen, eta Simssee aintzirara joaten, udako eguzki epelaren printzek begitarrea ferekatu ziezaioten.

“Zurekin hain naiz zoriontsu, hain naiz perfektuki bizi...” errepikatu ohi zion Katharinak alai irri eginez, gozoki musukatzen zuen bitartean. Eta

Xabierrek, maitasunez, belarrondoa ferekatzen zion batzuetan, eta hitz goxoak xuxurlatzen belarrira besteetan, inork aditu ahal ezin zituen sekretuak balira bezala.

Egun batean, ordea, urrutiko lagun minaren eskutitz larri bezain goibela iritsi zitzaion postari bibotedunaren eskutik. Astero jasotzen zituen eskutitzak, eta bakoitzaren esperoan irrikan egon ohi zen, bihotzeko adiskidearen berriak jakiteko gogoz. Postari bibotedunak automatikoki egiten zuen Katharina eta Xabierrenerako bidea astelehenero, eta irribarretsu ematen zizkion eskura berarentzat hain garrantzizkoak ziren albistek.

Udazkeneko egun hits hartan ere irribarretsu eman zion eskura lakre gorrimez zigilatutako eskutitz zuria. Eta Xabierrek adeitasunez agurtu zuen postari biboteduna, gozamina baitzitzaion horrelako jende txit jatorrarekin harremanak edukitzea. Behin etxeko salan, eskutitza ireki eta lagun minaren inguruko berriak irakurtzeari ekin zion. Gero eta gehiago irakurri ahala, lagunaren idazkerara narrasak oroitarazten zizkion oroitzapenek eragindako irribarrea iluntzen joan zitzaion. Eta bukarara iritsi zenerako, korapilaturik zuen zintzurra, eta dardarka zituen eskuak. Arrats hartan ez zen salatik atera, eta bere bakardadean lokartu zen, izerdi hotz eta burutazio ilunen artean.

Aipatu zion Katharinari adiskidearen afera, eta agian bisitan joango zitzaiola, gaizki ikusten baitzuen bere lagun maitea. Katharinak lasai egoteko eskatu zion, beharbada Enekok asaldata idatzi

zuela hura, eta ja hobeki egon zitekeela. Beraz, Xabierrek, beste eskutitz bat igorri zion bueltan, zeharo kezkatuta zegoela adieraziz, ea zinez bisitan joatea behar zuen galdetuz. Eta eman zituen bi hilabete esperoan, baina ez zitzaion deus etorri bueltan. Hala, are kezkatuago, bidali zizkion beste zenbait eskutitz. Baina postari biboteduna gutxiagotan ikusten hasi zen, eta irribarrerik egiten ez ziola ere iruditu zitzaion. Xabierrek, erantzunik jasotzen ez zuenez, zeharo arduratuta, Enekoren etxera dei egitea pentsatu zuen.

Deiak, ordea hondoratu egin zuen. Bereak eta bi esan zizkion lagun minaren amak. Hitz bakoitza erraietan sartzen zitzaion akuilua sentitu zuen. Eta gauero, ohean zegoelarik, burura etortzen zitzaizkion lagunaren amaren irain eta mespretxuak, gogoa minki mailukatuz. Ez baitzekien berak zer egin zuen gaizki, zer akats egin zuen.

Eta hasiera bateko mina gorroto bilakatzen joan zen. Zaila baita gizakiaren gogoa ulertzea, eta sarri, hainbeste dira bertan ematen diren jirabirak, ondorio ulertezinetara irits daitekeela. Eta sentimenduak zergatik garatu diren ere ez da jakiten.

Xabier, etsialdian jota gelditu zen, eta agudo bota zuten lanetik, ez baitzen gauza hitz bat bera ere egiteko totalka ez bazen. Eta, azkenik, nazkatuta, Katharinarekin ere hautsi egin zuen. Ezin baitzuen Rosenheimgo parkeetan zeutzan orbelen gainean ibiltzearekin, edota Simssee aintzirako eguzki epelaren printzekin, gozatu. Eta hala, Xabier gizagaixoa, bakardade soilean gelditu zen;

hutsik. Buruko pentsamendu nahasiekin erdi zoratuta.

Hain ongi gogoratzen ditu memento haiek, ezen oraindik ere, orduan bezala, ileak laztu eta erraiak kitzikatzen baitzaizkio. Enekok ez baitaki zer den sentipen hori. Zer jakingo du oraindik amarengandik bularra hartzen duen mukizu batek? Jakingo balu zer den atzerrian erabateko bakardadean sentitzea, isolamenduaren mina sentitzea...

Autobusak atea itxi eta aurrera egin du, geltokia atzean utziz. Xabier, aldi berean, Enekoren begiak zulatzeari utzi eta autobusaren azkeneko eserlekuan eseri da, gorrotoa bor-bor. Abailduta du gorputza, eta akituta gogoa. Ezintasunaren sentipen garratza erraietatik dabilkiola, guztia ahazten saiatu da. Mendi elurtuei begiratu die, eta bizitzari buruz gogoetan hasi da. Baina ja ez du itxaropenik. Bai baitaki itxaropena ahulenen babes dela, egia-ri aurre egin nahi ez diotenen lubakia. Badaki, gainera, itxaropen izpi bakoitzeko agoniako pitzadura bat agertzen hasten dela, poliki-poliki bertan hondoratzen joanez, balizko "agian" horrek erraietan dabilen har urduriari jaten emanez.

Eskutitzak bueltan noiz etorriko zain egoten zenetan ere, zerbait oker ez zihoalako itxaropenitsuak elikatzen zuen Xabier. Izan ere, Enekori idatzi zion azken eskutitza, lakrearekin zigilatzen ari zelarik, erantzungo zion sasi-itxaropen baten baitan egin zuen. Itxaropen koldar baten baitan. Eta barren-barrenean bazekien ez zuela erantzunik jasoko, baina nahiago zuen buru barruan biraka

zebillkion itxaropenean sinetsi. Finean sineskeria eta itxaropena gauza bera baitira.

Hartan, urduri egiten zuen so leihotik, postari biboteduna edozein mementotan agertuko zelakotan. Presa zuen, harategia irekitzea hari egokitzen baitzitzaion goiz hartan. Katharina ohetik jaikitzen ikusi zuen, eta sukaldera nola sartzen zen. Larruzko eskularruak jantzi eta bufanda kiribildu zuen lepo inguruan. Katharina baso bete esnerekin atera zen sukaldetik, eta musu heze bat eman zion Xabierri ezpainenetan. Xabierrek, ohi bezala, eskutitza postari bibotedunari emateko eskatu zion. Katharinak, irribarretsu, buruarekin baiezkoa egin zuen, eta lasai egoteko esan zion, atzerriko lagun minak oraingoan erantzungo ziola. Xabier, presaka, etxetik atera zen.

Katharinak, Xabierrek atea itxi orduko, irriño maitekorra irriño zital batean bihurtu zuen. Eta eskutitza eskuetan, logelara abiatu zen. Bertan, giltza txiki batekin, ondo gordeta zuen kutxa bat ireki zuen. Barnean, eskuetan zuen eskutitzaren gisako hamaika eskutitz zeuden. Batzuk, Enekoren idazkera narrasa zuten, eta beste zenbaitzuk, Xabierren idazkera fina. Haiekin batera sartu zuen azkeneko hori ere. “Perfekzioak ez du orbanik” ahoskatu zuen ozen, irri artean, ezagutzen ez zuen Enekori zuzenduz bezala. Jarraian, komunera sartu zen apaintzera. Arratsa Xabierrekin emango baitzuen Rosenheimgo parkeetan barna. Segur aski, Xabierrek ahaztuta edukiko zuen orduko lagun zirtzil hura. Bera baitzen zinez maite zuen

pertsona bakarra. Bera baitzen zinez maite zuen pertsona bakarra. Bera baitzen neska-lagunik onena. Bera baitzen perfektuena.

Eneko ere saiatu da lagun ohia burutik kentzen, betiko ahazten. Zertarako bete burua gorrotoz? Bizitza bakarra dela gogorarazi du, aukerak behin bakarrik ematen direla. Berari berriro jaiotzeko aukera eman diote. Zeretik hastekoa. Eta horregatik du odola bero, dena eraikitzeke duelako. Zer galdu ez baitu.